

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Koro Muñoz-Baroja

*Donostia,
Gipuzkoa
(1945)*

Aurkibidea



Biografia



Legazpi kalean bizi zen, Bretxa parean. Zortzi senidetan bigarrena. Aita Donostiarra zuen; ama Mutrikun jaioa zen, baina umetatik Donostian bizitakoa. Mirakontxa gainera joan zen eskolara Koro, mojetara. Baroja inprimategia (1812tik ezaguna, Konstituzio plazan zegoen) familiakoa zen; aitak bertan egiten zuen lana. Parisen frantsesa eta Londresen ingelesa ikasten egon zen Koro. Atzerrian hasi zen euskara ikasten ere, euskaldun erbesteratuekin, etxean ez baitzuten erabiltzen. Franco hil zenean bueltatu zen Donostiara. Maria Dolores Agirre izan zuen irakasle. Hainbat lanetan jardun du, besteak beste Egin egunkarian, erredaktoreen testuak mekanografiatzen.

Zintak

DON-052

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-02
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Bulebarra nolakoa zen; garraioak

- **Erref:** DON-052/002
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:01:17. **Bukatu:** 00:04:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bretxa parean bizi ziren, eta baserritarrak ikusten zituzten goizetan, azokara

joaten. Zaldikarroekin joaten ziren batzuek, besteak autobusez. Igandero kontzertua zegoen kioskoan. Tranbia; Peñafloia kalean zegoen geltokia. Autobus elektrikoak.

2. Legazpi kaleko dendak

- **Erref:** DON-052/003
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:07:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Legazpi kalearen inguruan zeuden negozioak. Ciprian dendaren gainean bizi ziren. Agirre arropa denda. Drogeria. Farmazia. Mokorua janari dendan festetako gauzka saltzen zituzten. Gomez zapata denda. Erro poltsa denda. Tamayo ere bazegoen ordurako. "El barato" almazenak.

3. Legazpi kale inguruko taberna eta gozotegiak

- **Erref:** DON-052/004
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:09:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak

Laburpena:

Legazpi kalean ez zegoen tabernarik, baina gertu bai, Oliden kafea eta El Txoko; toreatzaileak han biltzen ziren. Arrieta y Garagorri gozotegia.

4. Txerri-jana eta esnea

- **Erref:** DON-052/005
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:12:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bretxan erosten zituzten barazkiak. Baserritar bat joaten zitzaien etxera txerri-janaren bila, Aieteko Prexen (Indianoenea baserrikoa). Esnea beste batek ekartzen zien, Bixenta izenekoak; autobusez joaten zen Astigarragatik. Indianoenea baserrian pasatu zituen egun batzuk, umetan.

5. Baroja inprentaren historia I

- **Erref:** DON-052/007
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:15:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Aitak etxeko inprentan egiten zuen lana. 1812an ireki zuten inprenta, Donostian, baina hurrengo urtean Donostiako sutean dena erre zen. Oartzunera joan ziren orduan, berreraiki bitartean (aurretik ere han izan zen inprenta).

6. Etxeko inprenta, Konstituzio plazan

- **Erref:** DON-052/009
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Inprenta Konstituzio plazan egon da beti, itxi arte. 18 de Julio izena zuen lehen plazak; Plaza Berria ere izan zen, baina berak ez du hala ezagutu.

7. Baroja inprentaren historia II

- **Erref:** DON-052/010
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:17:34. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Errioxatik etorrira inprenta jarri zuen Baroja aitona aitona izango zen, edo birraitona. Alabak, birramonak, Josefa Baroja, Canuto Muñozekin ezkondu zen. Oso gizon abertzalea zen. Manterolarekin batera, Euskal Herria aldizkaria egin zuen. Euskal festa ere beraiek asmatu ei zuten: Ikatz kalean bertso saioa antolatu zuten, balkoitik balkoira.

8. Aitona, Donostian zinegotzi

- **Erref:** DON-052/011
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ignacio Ramon Baroja aitona Donostiako zinegotzia izan zen. Udaletxea

Konstituzio plazan zegoen lehen, eta hantxe zeukan inprenta (plazako 2. zenbakian, ikus mapan). Napoleon bisitan joan zen batean, inprentara joan ziren bere bila, eta bata ere kendu gabe egin zion harrera.</p>

9. Inprentako lanen bilakaera, ikaragarria

- **Erref:** DON-052/012
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:26:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Inprentako lana asko joan da aldatzen. Moldeak letraz letra prestatzen zituzten, banan-banan antolatzen zuten orria. Linotipia asmatu zutenean, aurrerakuntza handia izan zen. Lerroka antolatzen zene orria, ez hizkika. 90eko hamarkadan argitaletxe bat jarri zuten, eta lehengo erara egiten zituzten liburuak.

10. Umetatik inprentan laguntzen

- **Erref:** DON-052/014
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:27:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Umetatik ibiltzen zen inprentan laguntzen. Eskuz muntatzen eta tolestatzen zituzten liburuxkak.

11. Inprentako tresnak

- **Erref:** DON-052/015
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:31:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Franquismo garaia zen, eta liburu denak erdaraz argitaratzen zituzten. Inprentako makinak: zulagailua pedalarekin zebilen; enkoaderatzeko tresnak. Tarjetak egiten zituzten.

12. Inprentako tresnak II

- **Erref:** DON-052/017
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:32:13. **Bukatu:** 00:34:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ezagutu zuen makina zaharrena mende hasierakoa zen. Kartelak egiten ziren han. Makina automatikoak aurrerapen handia izan ziren; Alemaniatik ekarri zituen aitak. Langile gehienak gizezkoak ziren. Paper denda ere bazuten, eta han emakume bat egoten zen.

13. Anaia eta ahizpa inprentan lanean

- **Erref:** DON-052/018
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:34:46. **Bukatu:** 00:35:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Zortzi senide ziren. Ahizpa zaharrenak aitarekin egin zuen lana eta anaietako batek ere bai; Bilbon ikasi zuen.

14. Eskolan mojekin

- **Erref:** DON-052/019
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:35:29. **Bukatu:** 00:37:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eskolan Sagrado Corazon ikastetxeko mojekin ibili zen, Mirakontxa gainean. Peña Gantxegiren etxea dago orain han. Ez du mojen oroitzapen onik. Gaueko zortziak arte egoten zen eskolan; meza entzun, gosald... dena egiten zuten han.

15. Eskolan mojekin II

- **Erref:** DON-052/020
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:37:34. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Euskal kontuak tabua ziren. Ez zekien ikaskide batzuk euskaldunak zirenik. Mojetan diziplina zorrotza zen. Norbait begitan hartuz gero, akabo. Bere ahizpari ezkerreko eskua lotu zioten, ezkertiarra zelako, eta eskuinarekin idatzi zezan. Denbora librerik ez zuten. Larunbatetan ere eskolara.

16. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-052/021
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:44:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Umetako jolasak: sokasaltoa, txingotan... Eskolan briletera jolasten zuten. Patinatzeko pistak zituzten eskolan. Udan Alderdi Ederren kromoekin ibiltzen ziren. Okendo parkera ere joaten ziren; hantxe ikasi zuen bizikletan ibiltzen, txandaka.

17. Hondartzako giroa eta isunak

- **Erref:** DON-052/022
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:44:23. **Bukatu:** 00:48:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzara ere joaten ziren. Aita oso zalea zen: Eguzki klubekoa zen, eta egunero bainatzen zen. Emakumezkoek gonatxoa eraman behar zuten. Toldoa zuten beraiek. Hondartzan ezin zen arropaz aldatu: isuna jartzen zuten. Kabinak erabili behar ziren; dutxak ere bazeuden. Guardiak ibiltzen ziren, kontrolatzen.

18. Kaiko giroa eta arrain saltzaileak

- **Erref:** DON-052/024
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:49:05. **Bukatu:** 00:51:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Kaiko giroa. Sare konpontzaileak. Merkantziak iristen ziren kaira; Rezola zementua han kargatzen zuten. Arrantza ontziak eta txalupak zeuden, yaterik ez. Arrain saltzaileak ibiltzen ziren kalez kale, antxoak saltzen eta Bretxa inguruan. "Antxoa freskue!".

19. Jostunak egiten zizkien arropak; moda

- **Erref:** DON-052/026
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:51:49. **Bukatu:** 00:54:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Ez zuten josten ikasi. Amak bazekien, baina alabek ez dute ikasi. Jostunak egiten zizkien soinekoak. Ez zen egindako arroparik erosten. Gantxegi oihal dendan erosten zituen amak telak. Aste barruan uniformeak erabiltzen zuten, eta soineko bakarra zuten igandetarako. Gona plisatuak jarri ziren modan. Denak berdin joaten ziren jantzita. Minigonaren modak Londresen harrapatu zuen. Eskandalosoa zen minigona erabiltzea.

20. Permanentea, Jaunartzerako

- **Erref:** DON-052/027
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:54:41. **Bukatu:** 00:58:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Ile apaindegira ez ziren asko joaten. Lehenengo Jaunartzerako kiskurtu egin zioten: permanentea. Burniak buruan. Carmenen ile apaindegira joan ziren, birritan.

21. Inguruko herrietako jaietara

- **Erref:** DON-052/028
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:58:21. **Bukatu:** 01:00:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Txikitan ez ziren inora joaten: beti Donostian. Koskortutakoan inguruko herrietako festetara joaten hasi ziren, igandetan. Larunbata lan eguna zen; "sabado ingles" etorri zen gero.

22. Emakumeak tabernetan sartzea, gaizki ikusia

- **Erref:** DON-052/029
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:00:04. **Bukatu:** 01:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ama aitarekin sartzen zen tabernara, baina bakarrik ez. 18 urterekin hasi ziren Parte Zaharrean tabernetan sartzen, baina ez zegoen ondo ikusita. Kafetegira ondo, txokolatea hartzera, baina tabernara ez.

23. Kanpora joateko eta ikasteko aukera

- **Erref:** DON-052/030
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:02:12. **Bukatu:** 01:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bera baino 10-15 zaharragoekin alderatuta, bizimodu ezberdina izan du. Kanpora joan zen ikastera. Bere garairako neska askok izan zuten unibertsitatera joateko aukera. Aurretik ez. Gurasoak zorrotzak ziren gaueko ordutegiekin.

24. Parisen eta Londresen ibilia

- **Erref:** DON-052/031
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:03:57. **Bukatu:** 01:05:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Parisen ibili zen, Londresen... 19 urterekin frantsesa ikastera joan zen eta Londresera ingelesa ikastera. 23 urterekin Parisera bueltatu zen, gorabehera politikoengatik. Frantzian bizi izan ziren Franco hil arte.

25. Euskara ikasteko prozesua

- **Erref:** DON-052/033
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:05:20. **Bukatu:** 01:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Euskara ikasi egin zuen, etxean ez zutelako hitz egiten. Aitonak bazekien, eta lagun batzuekin erabiltzen zuen. Parisera joan zenean, euskaldunekin egin zuen topo, eta euskara ikastea erabaki zuen. 60ko hamarkadan Maria Dolores Agirrerekin egin zuen lehen ikastaroa, Easo kalean, Circulo de Declamacion Vascan. Senarrarekin ikasi zuen gero, erabiliz, Parisen.

26. Euskara ikasteko prozesua II

- **Erref:** DON-052/034
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:08:36. **Bukatu:** 01:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Euskara ikastea zaila dela mitoa da, neurri batean. Berari fantsesa edo ingelesa ikastea beste kostatu zitzaion.

27. Euskara zer zen berarentzat umetan

- **Erref:** DON-052/037
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:11:23. **Bukatu:** 01:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Umetan berarentzat euskarak ez zuen presentzia handirik. Lagun batzuen etxean debekatuta zegoen erdaraz hitz egitea; beraiek joaten zirenean, haien aitari ez zion graziaz egiten.

28. Euskara nola galdu zen bere familian

- **Erref:** DON-052/038
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:13:28. **Bukatu:** 01:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Familian euskara nola galdu zuten azaltzen du. Aitona Burgoskoa zen, eta amona (mutrikuarra) gazte hil zen; hortaz, amak ez zuen ikasi. Aitak euskara ikasi zuen pixka bat; umeei hitz batzuk esateko beste.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com